



ALKATE DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

2021eko abenduaren 20tik aurrera Usurbilgo Udaleko Aparejadore/ Zerbitzu eta mantenu saileko burua lanpostuan bitarteko funtzionario bat izendatzeko beharra sortu zen. Orduetik hainbat administrazioetako lanpoltsak erabili dira, bai 4. hizkuntz eskakizuneko eta baita 3. hizkuntza eskakizuneko zerrendak, baina ez da baiezkorik jaso.

Egoera horretan, 2022ko urtarrilaren 21ean Alkateak oinarriak sinatu ondoren Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidezko prozesu bat abiatu zen, lehiaketa sistema bidez, administrazio publikoetako lan eskarmentua baloratuz, aurretiaz Alkateak onarturiko irizpideen baitan.

Interesatuak haien kurrikuluma aurkezteko 5 egun naturaleko epea eman zen, iragarkia argitaratu ondoren, hau da, berez, urtarrilaren 26a arte. Hala ere, izengai batzuek horrela jakinarazita, urtarrilaren 25eko arratsaldean izen-ematea egiteko arazoak egon ziren, eskaintza itxita zegoelako.

Gerora eskaintza 26 eguerditik aurrera eta 27a bitarte berriz ere irekita egon zen arren, tarte batean hautagaiek ezin izan zuten izen-ematerik egin.

Horrez gain, Lanbideko eskaintzak akats batzuk zituen onarturiko titulazio, hileko soldata eta eskaturiko gutxieneko lan eskarmentuari buruz eta gainera eskaintza ez da udal web orri ofizialeko lan eskaintzen atalean argitaratu.

Azkenik, izengai batzuk adierazi dute Lanbiden izen-ematea egin dutela, kurrikulum osoagoa posta elektronikoz udalera bidaliz, baina Usurbilgo Udalak Lanbidetik jasotako kurrikulumetan ez dira ageri.

Pertsonal eta Kontratazio Teknikariak egindako txostenaren arabera, Prozesu honek izan nituen akats eta gorabeherak ikusita, Lanbideren bidezko prozesua bertan behera utzi eta, akatsak zuzendu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez argitaraturiko prozesu azkar bat egitea da, txosten honekin batera doazen oinarrietan oinarrituta.

Aurreko prozesuan titulazioaren baldintza beteta eskaera egin zuten horiei aurretik akreditaturik duten baldintza eta eskarmentua berriro ez akreditatu behar izateko aukera emango zaie, horrela eskatzen badute.

Gainera, erabaki hau GAO-n argitaratzeaz gain udal web orriko lan eskaintzen atalean ere argitaratuko da eta aurreko Lanbideko prozesuan parte hartu duten guztiei, baldintzak bete edo ez, posta elektronikoz bidez jakinaraziko zaie.

KONTUTAN HARTURIK

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren 3a eta 5/2015 Errege Dekretu Legeko IV. Tituluaren I.Kapitulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II Tituluko IV kanpituluak xedatzen dutena hartu da kontuan.

Beraz, hau dena kontutan harturik, zera

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Usurbilgo Udalak Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez 2022ko urtarrilaren 21ean abiatutako lehiaketa sistema bidezko deialdia bertan behera uztea prozesuak izandako akats eta gorabeherak tarteko.



Usurbilgo Udala

ID.06/2022-0022

BIGARRENA: Udal Aparejadorea / Zerbitzu eta mantenu saileko burua lanpostuan, une honetan hutsik dagoena, bitarteko funtzionario bat izendatzeko lehiaketa sistema bidezko deialdi berria egitea.

HIRUGARRENA: Deialdi berri hori arautuko duten oinarriak onartzea. Ebazpen honen eranskin gisa doaz oinarriak.

LAUGARRENA: Deialdi hau eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BOSGARRENA: Akordio hau udal web orrian argitaratu eta honen berri Lanbideren bidez izena eman duten izengai guztie posta elektronikoz jakinaraztea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatzaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu orde, edo berraztertzeko errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua.

ALKATEA
Agurtzane Solaberrieta Mesa

Nire aurrean
IDAZKARIA
Garazi Etxeberria San Miguel



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe93d3a14-f585-48c9-8c33-89d051eb6f18**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022ID060008-ID06_Dekretua/ID06_Dekretua (USURBILGO UDALA)